



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—:	X Urtea	1928'ko	Ilbeltza	109 Zenbakia	:—
----	---------	---------	----------	--------------	----

!URTE BERIA!

ORIONEKOA zuentzat, irakurle euskaldun maiteak! Urte befi, befi ere etofi zaigu! Nola dijoazen urteak! Ala ere ori egiya izango balitz, urteak ez, urteak ez dijoaz, urteak geldi daude, gure bizitza dijoa, gu gabilta gelditu gabe!

Trenian edo automobilean goazenian, laxterka ¡zein ederkí! zein pozik, baño itxutu egiten gera, eta badirudi, mendiak, etxeak et guziya laxterka dijoala, baño ez da ori egiya, gu gera laxterka gabiltzanak; gure bizitza ere ori da, gu gabilta, urtiak geldi daude.

Urte befiya, baño gauza zafetan ibili bear befi. Gure eskuetan utzi digu Jaungoikoak zerua irabaztea, ta ortarako ematen digu beste urte befi bat, bere Lege zafean Zeru ori irabazi dezagun. Jaungoikoak ezdu aurtan bere Lege Santua aldatuko, ofen bidez ibiliko gera aurtan zerurontz.

Befiz ere Jaungoikoak gure eskuetan liburu befi bat jafi digu,

jurte befia! Iruregun ta irurogeita bost ofialdeko liburua. ¡Zer egin bear degu liburu ofekin? Gauza onak idatzi, bizimodu ona, liburu ori Zeruan gordeko baidu Jaungoikoak.

Ta gure bizitzako urteak igaroko diranian, liburu oyek atsegi-ñezkoak badi-ra jorduko gure zoriona!

¿Zer gertatuko ote da urte bere ontan? Batzuek pakea izangodegula diote, besteak geña. Andik aurren frutu ugaria izango dala, emendik ariak dana ondutuko duela diote. Osasunak, guzia poztuko duala, eriotza asko izango dala. Ez daki-gu, Jaungoikoak, biali be-
uza, muñ egin Jaunaren eskuari. Begira zazu zure famili-
az, ta ez di-
tuzu naigaberik izango.



Baño zure eskuetan dago zorionekoa izatea edo ez, datofen urte befi ontan. ¿Zoriona nai dezu? Iges egin zazu alperkeritik eta peka-tuagandik. Garbitu zazuzurekonzientziya, ekin lanari ta zure zeregiñari ta pakea zurea izango da. Lanerako ez ba-zera ga-

Zangufua beti atzeraka dijoa: zangufua bezela bazabiltza, gero ta gaizkiago betetzen badituzu kristauen egin beñak, kaltegaria izango da zuretzat urte befi ori. Ez olakorik egin.

Ez degu olakorik nai gure irakurleentzat. Egun abetan Belengo estalpean jayo zaigun Aur Jaungoiko ofi eskatzen diogu aŕen emateko gure irakurle zintzoai ¡¡Urte befi on!!

IDA ZLEAK



Atozte: agurtu de-
zagun: auzpeztu gai-
tezen Jaungoikoa-
ren aurrean.



Eutsi Esiari

Nere adiskide Etxegarai'tar Bonifazio jaunari.

Nere afizko mendi-txabola bafeneraño
eldu zan zure ifintzia:
pakezko ifintzi, dei maitetsua, euskaldun-biotz
on baten oyu bizia.

Ai, nik al ba-nu zure dei ori nere asnasez
bertso auetan indartu, •
t'odol biurtu, t'euskaldun danon biotz-baŕuan
gafa dariola sartu...!

Euskal-semeak...! Euskerik gabe nola liteke,
noletan *Euskal-Eŕia*?
¿Zertako degu gure basoko zugaitz-gañean
txoririk ez dun kabia?

¿Ez al-da izkuntza geren aitonak joan baño len
eman ziguten musua,
ta aiekin beti alkartu eta lotutzen gaitun
maitasun-laztan estua?

Geren aitonak ta gure Eŕia maite ditugu
¿nolaz, ba, maite ez euskera...?
Gerok, gure eskuz ustekabean gure ilobia
ai! egiten ari gera.

Euskera il-eta, gure izatea ta izen garbia.
eroiko dira ilundira.
afizko esi-gañeko lorak, aŕek lur jota,
lorak be, lur jota dira.

Euskaldun danok, alkar artuta, eutsi daiogun
esiai eroi baño len...
Euskaltzaleak...! Jun atez-ate euskaldun danoi
beren biotzak eskatzen;
ta egin dezagun danon biotzez biotz aundi bat,
euskal-biotz bat lenbailen....

Ta alare esia eroitzen ba-da, bere azpian
danok pozez il gaitezen.

JAUREGI'TAR LUIS

Elizaren boskaren agindua



Ita et Dominus ordinavit his qui evangelium annunciant de evangelio vivere. (I Corin. IX-14).

Onela agindu zien Jaunak ere, ebangelioa adierazten dutenai, ebangeliotik bizitzeko.

LIZAREN boskaren agindua bere xetasun guziakin nai nizuke gaur adierazi. Zein da ordea? Bitoria'ko Kristau Ikasbideak dio: *Oi danez amarenak eta asikiñak Elizari ematea*. Napaokoak befiz dakar: *Elizari bearetan laguntza ematea*. Gauza bera ez ba-dirudi ere, alaxe dala argi adierazten digute biak esanez: elizkizunetarako ta elizgizonen bizibiderako bear dan laguntza ematera beartzen gaituela agindu onek.

Elizarekin siñestunak daukagun zoñra.

Elizarekin, bere umeak ezeren zoñik ba-daukatenik etzaie iruditzen askori. Baño uste baño zor aundiagoa daukagu berarekin.

Lege Zañean Jaungoiko berak adierazi zien au Israeldafai. Israeldafak ematen zizkien beren gogozko eskeintzetatik bizi bear zuten Apaizak. Biltzen zuten ogi, ardo ta olioaren asikin edo aufenak, Apaizai eman bear zizkioten; ardiak moztutzean, artilearen zati bat ere bai (Deut. VIII-1).

Salem'go Eñeñe zan Melkisedek, Jaunaren Apaiza. Abraamek, zituen ondasun guzien amafenak, ofi eman zizkion. (Gen. XIV-18).

Pablo Apostolu deunak dakafenaz, Apaizgora jasotako Lebitar guziak agindurik zeukaten legean, eñagandik amafenak artzeko.

Eginbide bera al daukagu Elizaren umeak?

Pablo Apostolu Santuak alaxe uste du. Ezagun zaio bere eskutitz edo kartetan biotzean daramala uste ori.

Timoteo bere ikasle maiteari esaten dio: Apaiz, egoki dijoazenak bi al-diz ooragafi (goragafi) dira: batez ere itzez eta erakusketaz lana egiten du tenak. Eskriturak (liburu santuak) bai dio: idi txetzañeari ez diozu agoa josiko; eta, langileak jana irabazia du (I Timot. V-17-18).

Apostoluaren itz oiek, berak adieraziko dizkigu argiago. Galaziafai esaten die: Ikasbidea (dotriña) itzez artzen duenak, itzez ikasbidea ematen dionari emaiola bere ondasun guzietatik (VI-6).

Korintoafai adibide ugariz adierazten die ain biotzean zerman gauza au.

«Mastia edo ardantzea landu ta aren zituetatik jaten ez duena ñnor da?» dio. Artalde bazkatu ta ofen esnetik edaten ez duena ñnor da?». Esan nai du, ba; Apaiza ba-da Jaunaren mastia aldatu, kristau befiak egin, landu edo ofen onez lanean beti ari dana; ez al da bidezkoa, mastilariak matsetik bezala, lantzen duen eñi ofen ondasunetatik Apaizak ere jatea? Jesus'en

ardien zai, aiek bazkatuz, eta otso artetik urunduz dabilenak, aidi oiengan-dik bizibidea ateratzea gaizki al dago?

Ufena dio. «Gizonen antzera ari ote naiz?» Nai du esan, beren bizigafia edozein bidez bilatzen duten gizonen antzera itzegiten ote dizuet? Eta ez dala ofela bereala egiztatzen du esanez:

«Baño Legeak ez al ditu gero esaten gauza auk? Moise'ren Legean ezafirik dago; idi txetzaleari ez diozu agoa josiko. Idien ardura ote dauka Jaungoikoak? edo gure onez esan ote du ori? Alegia gure onez ezafirik dau-dela (gauza auk); afetzen duenak eta xetzen edo eultzia egiten duenak zi-tuck biltzeko ustean afetzen eta xetzen du. Guk zuen animakoak erain ba-dizkitzugu, asko al da zuen lufekotatik guk biltzea?» ..

Oraindik bere esan guziei indar geiago emanaz dio Apostolu Santu onek: Ez al dakizute donetegian (Jaunaren etxean) lana egiten dutenak, do-netegitik jaten dutela; eta aldarearen zeregiñetan dabiltenak, aldaretik ar-tzen dutela?»

«Bereala agindu zien Jaunak ere ebanjelioa adierazten dutenai, eban-jeliotik bizitzeko (I Corint. IV-7-14).

Onela ikusten degu Mateo santuaren ebanjelioaren amargafen buruan Apostoluak ebanjelioa erakustera bialtzean. Soñeko bat, ofetan zolak eta beste bizigafi ezer gabe joateko agindu ziela. Eta ofela bialtzean Jesus'ek bereala esan ziela zergatik bialtzen zituen era artan esanez: *langileak ira-bazia du bere jana-ta*».

Ebanjelio berak dakafenaz, badakigu, Jesus'ek eta bere Apostoluak efiak ematen ziotenetik jaten zutela, Ebanjelioa erakutsiz zebiltzen artean eta Apostoluak bereala bizitzen zirala lufa bafena Ebanjelioa adieraziz ze-biltzenean.

Gaur nola bizi bear dute elizgizonak?

Kristau-efia bearturik dago era batera edo bestera Elizari ta elizgizo-nai laguntzeko.

Biltzen dituzten gauza guzien asikin edo aufenak eta amafenak len be-zala ematera bearturik al daude? Galde oni erantzunez X-gafen Pio Aita Santuak dio: «Elizari zor zaion amafenakin betetzen da, Jaungoikoak gau-za guzien gañean daukan jabetasuna ezagutzeko egiten diran eskeintzak emanaz edo emateko erabakiak ordainduz eta apaizen bizibide egokiari be-gituz».

Nola ordaindu bear da amaren ori?

Amafen ori ordaindu bear da, alde bakoitzeko oiturak erakusten duten gauzakin eta era artan. X-gafen Pio'k.

Orain aldian, gure aldetan Gobernuak ematen dio Apaiz bakoitzari be-re bizi-saria, bere ardurara daukan elizari dagokion eran. Eta Kristau efiak Gobernuari ordaintzen dion petxarekin betetzen du bere eginkizunaren za-ti bat.

Beste eginkizun bat da Estolaren eskubideakin betetzea. Au da, Eli-zak eta Apaizak ba-dituzte iñor bataiatzean, ezkontzean, iltzean eta abar,

beren artzekoak; eta artzeko auk, kristauen aldetik dira elizarekin dauzkatzen zofak.

Gañera efi askotan eta batez ere txikietan Apaizari Gobernuagandik datorkion bizigafia ain uria delako, efiak ba-dituzte beren oiturazko eskeintza, beti eman oi dituztenak. Auek guziak beren lengo izanerara irautea eskatzen du, ba, X-gaŕen Pio Aita Santuak eta Elizak beraŕekin.

Efi txiki asko, eskeintza oiek galduz gero, Apaizik gabe gelditu beafak dira. Apaizak amaika edo amabi urteko ikastaroak egin bear ditu meza ematerako; gero berari dagokion eran jantzi eta agertu bear du; baŕio beste Gobernuaren langile edozeŕen sari-erdia, sendalari edo irakasle (maisú) edozeŕek baŕio ainbat bízisari txikiagoa duela, gaurkoan nola bizi bear du kristau efiak ez ba-dio laguntzen Apaizari?

Kristau efiá, begi zazu gero, Gobernuak dauzkan beste langile bat ez dezula Apaiza bezin zintzo beti zure efián daukazunik, beti bere lanari emanik dagoanik, deitu orduko ofek baŕio agudogo zure bear ordu guzietan laguntza ematen dizunik; iŕior ere ez bizitzako ordu latzagotan zuri ezer kendu gabe lagunduko dizunik, edo ofek bezin maiz zure onez lana bere gain artzen duenik.

Begi zazu, ba, ea merezi ote duen, ematen diozun apufetik oraindik ukatzea edo esker gaiztoz ematea.

Jesus'ek esan zuan au ez aztu: *Langileak irabazia du bere jana*».

Intza'r Damaso An.






Ave dulce Cor


(Donosti'ar J. And. Abak eresketua.)

Moderato

A - ve dul-ce Cor Ag-ni, De-i Pa-tris Fi-li - i,




De cú - jus e - ffú - so sán-gui - ne vi-res - cunt sponsae



ut li - li - - a: tu sá - - lus et a - mor * nó - stri do -





mi - - cí - li - - - i * a - - - ni - mae no - strae.



OARA. Eresi onen itzak *Mère Marie Séraphique de la Conception Tomasi*'k egiñak dira. (1643-1720) Italia'n, Palma'ko lekaretxean bizi zan. Jesusen Biotzari «*Salutatio*» edo «*Agurtza*» au egin oi zion. Dom Gaston Lecroq, beneditinoak, soñuz antolatu eta argitaldu du au, «*Revue du Chant Grégorien*» (Septembre-Octobre 1920) izena duen ilabeteroko izpatingian. Kantu polita, samura da. Egokia da ilabete bakoitzeko lenbiziko ortziralean kantatzeko: bai ta ere Jesus'en Biotzaren elizkizunetarako eta Yaureskunde festa edera Udaletan, etxetan, eta abar, egiten denetarako.

Donosti'ar J. And. Aba.





Buruko ileak itzultzen.

Paduako Antonio Deuna Prantzi aldean zebilen garaian bazan emakume bat osoro prañen alderakoa, aiek bear zituzten gauzak erosten eta ibiltzen zana. Emakume ofen senafa izugafi leiatia zan eta pralekin ezer nai etzuen.

Prañentzako lanetan berandu arte ibili eta etxera ilundurik etofi zan batean. «Orain al ator ire maiteengandik?—galdetu zion senafak. Eta «Egia dek. Jaungoikoagatik maite ditudan, Anai Txikafetatik netofek, eta beraientatik netofek ofen berandu»—erantzun zion andreak.

Eta senafa, asafeak arturik, buruko ileetatik etxiki zitzakion eta bate-
ra ta bestera tiraka motots guzia atera zion zuzlafetatik.

Emakume gaxoak ileak bildu eta burukoaren gainean ipiñi zituen eta burua beraien gainean zuelarik etzan zan.

Biaramon goizean, gaizki zegoela ta, Antonio Deuna beragana etofie-
razi zuen, eta Deuna berealaxe joan zitzakion aitortzea edo naiko zuela-
koan. Bere oatz aufera zanean onela mintzatu zitzakion emakumea: «Anto-
nio Anai ori, ara zer gertatu zaidan zure prailengatik. Nere alde gure Jau-
nari otoitz egiten badiozue, nere ileak lengo beren tokietara itzuliko dira.»
«Eta ofetarako etofiarazi al nazu?»—galdetu zion Antonio Deunak. Eta
Deuna berealaxe itzuli zan bere etxera eta, bere praileak bildurik, emaku-
me gaxoari zer gertatu zitzakion eta zer nai zuen agertuta, «Otoitz egin
dezakiogun bada gure Jaunari eta aren sinistea onez begiratuko duela uste
det»—esan zien.

Eta Antonio Deuna otoitz egiten ari zan garaian emakumearen ileak
zuzendu eta lengo beren tokietara biurtu ziran.

Senafa etxeratu zanean emazteak bere burua erakutsi zion nola gerta-
tu zitzakion esanaz eta gizona afiturik gelditu zan eta andik aufera, leia
txar guziak erabat utzirik, prailekiko eskuzabala eta oso elizkoia izan zan.

Aintza Jaunari eta aren mirabe zintzo Antonio Deunari!

Ereñotz

*
*
*

Baraibar'tik

Bi irugafendafek mesede bat eskatu zioten S. Antoniori, eskeiñiz ar-
tako meza bana eta gañera *Beartsuen ogitako* iru pezeta. Eskatu zutena

erditxi dute ta ofegatik eskeini zutena pozik ematen dute, ta «ZERUKO ARGIA'n jakinarazten dute.

Baraibar'ko bi Irugarendar.

Padua'ko Deun Andoni'ren bitartez

Urte onetako lenengo sei ilabetekuan zaldarez ta txinportaz beterik nerabilzan sama ta arpegi bafenak, batzuk yuan beste batzuk etofi, ezetara be ezin kenduta. Deun Andoni'gana yo neban, abindurik berari Urkiola'n mesa entzun eta yaunartuko nebala, ta biartsuei bost laurleko emongo neutsezala, ta iragafi mesedia. Ordutik asi nintzan oberantzan, ta uda erdirako garbi gelditu nintzan. Abindurikua bete dot, eta emen iragafi gura dot Deun Andoni'gandik arturiko mesedia.

Afezkero, neure bizibideko lanian estura baten aurkitu nintzan batian, otoi egin neutson Deun Andoni'ri laurleko bi biartsuentzat abinduta, eta beriala esturatik atara nindun.

Eskefak Jaungoikuari Deun Andoni'ren bitartez.

Biloltare.


Bilbo 1927 Lotaziila 7.



Ilabete onen amalaugaeren egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'-REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.



“Jaio zaigu”



GUN eder-aundia badator.

Joxe eta Maria, bere lagunen artean gaua igaro nayan, atez-ate etxe bila dabiltza. Bañan beartsuak diralako jendeei aiengatikan ajola gutxi.

Ezin bestean senar-emazte onak gosetuak eta otzak zatituak ukulu ilun-zaka-zikin batian sartu bear izandu dute, an dauden asto ta idiak, lagunak egin ez tien afera egin dielako.

Gau ilun-otz artan aizeak zarata aundia dabilki.

Bañan ora: bat-batian argitasun zoragafia, ukuluan sortu da. Potez txoraturik eta ezti-ezti kantari aingeru zerutafak ukulura jetxi dira.

An baitago Mariaren magaletxoan, ama guzien artean zoragafienak munduari eman dion seme, aingerutxo eder-zoragafiena!...

Eta amak beste seaskatxorik eztaukalako ukuluko aska batean lasto tarte Jaungoikoaren Semea den Ume edef-zoragafia utzi du.

Bere senafak beriz muxu bero goxoak gizonen Zeruratzalea izatera zerutik jetxi den Jaun aundiyari eman dizkio.

Aingeruak otz ikaraz, ain bakafik, ain beartsu, gaxua negarez Ume edefa ikusi ta, Joxe ta Mariaren lagunen artera beren Semetxoaren jayotzaren befi ematera joan beafian, mendi aldera egaka abiatu ziran kantari bidean: «Goi-goyan aintza Jaungoikoari eta lufean (borondate) gogo oneko gizonei pakea».

Eta..... gogo oneko jendeak ziralako, Belen aldeko artzaiei inori baño len Jesus jaio zala esan zieten eta artzaiak ori jakin bezin laster ukulura joan ziran eta beren Zeruratzalea agurtu ondorean, antxen ikusi zituzten gauzeekin afiturikan gelditu ziran gizajuak. Esango're zuten noski beren txaboletaronz mendira abiatu ziranian: Zerutik etofri zaigun Ume edefa, Jaungoikoa izan afen, otzak dardaraz ikusi degu! gaixua negarez!...

Biyotz askok maite eztutela ikusita, negar egin albalezake, Belengo Aur-Jaungoikoak egingo ez luke?...

Oyartzuna.

Ikasi..! Ikasi..!



I.—Erege-egun bezpera da;
Gogor ari du euria...
Perutxo'k fraile gaxoa
Or darama bere etxera.



II.—An ederki berotu da;
Gero atertu'ondoan
Perutxo'k ematen dio:
Opil bat, joatekoan.



III.—Auxe mutiko gaiztoa
Manu, Peruren anaia!
Fraile goxoa'ri atzetik
Eztio'ba egin afika?




IV.—Ortxe beren moñoiekin
Datoz iru Efegeak,
Ume onai emateko
Gauza ederez' beteak.



V.—Peruren etxe afean...
Iru Efegeen moñoia
Leiotik sartzen etxera
Gauza politak uztera...



VI.—Ora or bi mutikoa
Efegeak ekaña:
Peru'ri jostailu edera
Manu'ri beriz... aña..



Kingchow 1927-IX-20'an

Ataun'dar Bonipagi H'ri.



GUR, maite ori. Gergori A'k bialita, 18'an artu nuan zure VII-19'koa. Auren-aurena zorionik beroena jau-pari zeralako, Jainkoak lagun deizula, oñeri daraiz-kion egin-bearak ondo betetzen.

Aureko ilabetearen 9'an atera nintzan Pingliang'dik; emen dena pakean ote dagon ikusi ta 15'erako beriz nere txokora itzultzekotan. Bañan Jainkoak ez du oñela nai izan, da oraindik ez naiz ara itzuli.

Eri au Pingliang'dik 163 li'ko bidean dago (li bakoitza 600 metro); oraingoan bide au bi egunetan egin nuan. Eldu bezin laixter, emendik 30 li'ra dagon erixkara deitu niñuten elizakoak gaixo bateri ematera. Bazkaldu ta ara. Iluntzean **Extrema** eman eta urengo goizean meza ta **Viaticum**. Gabez euria gogotik egin zuan eta tarteko ibaia aunditu; inolaz ere ezin itzuli urengo eguna arte. Itzuli nintzeanean bazkaldu eta Pingliang'era joateko gertutzen ari nintzala, beriz ere deitzen naute elizakoak ematera 140 li'ko bidean. Bereala atera nintzan, urengo egunean eguerdi aldera Kaodjiatschuen deritzaion toki oñetara eltzeko. Bidean aldapa gogorak eta ikarogarizko bideak. Bide txarak ikusi ba-ditut ere, ez det uste ura bezelakorik. Eguzkia eretzeko bezela, goietan beriz aize otza. Ostatuko nere gelak ez du aterik, eta nerekin manta bat besterik ez det. Oñela goizean ikusten ez nagola ondo. Ala ere iruetan jeiki giñan; bañan bidea amaitu baño lenago, kristau baten etxean gelditu-azi niñuten eta an ordubete edo etzanda egon nintzan. Oliadura eman da, ordubeteko bidean dagon elizatxo batera joan nintzan; bazkaltzerako ordubiak joak. Emen igandea eta Ama Birjiñaren eguna egin nituan. Txinan igaro ditudan

egunik pozgaríenetakoak, emen igaro nituan. Kristau asko dira inguru ontan; gurasoz-guraso aspaldiko kristauak. Ez dira bertakoak, Setchuen'dik, gosetean, igesi etoriak. Ayen poza Ama Birjiñaren egunean berekin apaiz bat izateal Ayen garboá beren otoitzak eta abesteko. Galdezka zeuden iya noiz berak ere apaiza berekin izango ote du-



Agurtu'dezatela bere aingeru guziak

ten. Uréngo urtean izango ote duten itxaropena eman nien; aurten gure aberitit batzuk etortzekoak dirala ta.

17'an goizean beriz Kingchow'ra etori nintzan. Nere poza ikustean gure etxean ez dagola soldadurik (aurreko egunetan etxea soldaduz beterik genduan)! Egunean bertan, artzen det idazki bat, gudiariak gure Sanschelipu'ko etxean sartu eta gaiztakerien batzuk egin dituztela; bereala joan nai izan det Pingliang'era, bertako gudaiburuarekin gai ortaz itzegitera; bañan esan didate gauerako gudaiburu orek onera etori bear duala ta emen gelditzen naiz. Atsaldean gure

*etxe auretik gudari usko igarotzen dira; noizean beñ batzuk gure etxean sartzen dira, alojamenturako tokirik badagonez ikustera; mo-
roiak erakusten die zer toki dauden libre; ni bitartean, serio-serio,
itzik ere esan gabe barengo eskuratzearan egurasten. Ez dira ausartu
alojamentua artzen. Urengo goizean ez da erian soldadurik ere geldi-
tu, denak gudara joanak dira, emendik urbileko menditan gerila are-
rio batzuk agertu dirala ta.*

Gudalburuagatik galdetu nuan, eta ori ere beste gudalariakin joa-
na zala. Ikusirik bada ezin ezer egin dezakedala eta emen ere guda-
ririk ez dagoanez, ezere arixkurik ez dagoala ta, Chengyuen'era
Gergori A'kin egun batzuk igarotzekotan (100 li) joaten naiz. Gergori
A. beste mixio etxe batera joana da. (Uztan, erdi aldera alde ontako
mixiolari guziak Tsinchow'ra joan ziran gogoiñarkunetara, gu biok
etxe guzietako atezai utzirik. Oraindik ez dira etori.)

21'gnean etortzen da Chengyuen'era Gergorio A. ilabete bat edo
bada ez dedala ikusi. Orain egun batzutan bederik ere itzein dezaket
berarekin nere izkuntza maitagarrian.

26'garanean artzen ditugu beste idazki batzuek, beriz ere Sans-
chelipu ta Kingchow'ko misio-etxean gudariak sartu dirala ta lapu-
retak eta abar egin dituztela. Sanschelipu'koan mixiolariaren gelan ate-
tik sartu ezinik, leyotatik sartu, egoki zitzaizena ebatsi eta gañerakoa
apurtu edo luñera bota ta utzi dute. Kingchow'koan beriz eskolako
ikasleak kanpora bota eta moroiak mixioko atze aldean dauzkagun
etxe zar uratu batzuetara biali, berak toki on guziak beretzat arturik.
Sanschelipun aña gaiztakeririk ezpadute egin ere, mixiolariaren fran-
ko gauza emen ere ostu dituzte.

Bereala erabakitzen degu, Gergorio A. 28'an Mudjiamia'ko eliza
ingururatu ondoan, Sanschelipu'ra joango dala ta ni Chengyuen'en
geldituko naizela mixio-etxea ta Santa Infanciakoa gordetzeko. Nik
ere Kingchow'ra atera nai nuen, bañan esan zidaten obe zala oraindik
ez joatea, ang moroiak deitzen ez nauten ezker.

(Jaifaitzeko)

Lizartza'r Andres, A.

Euskaltzaleak

Izen au artu duen alkartasun beñ bat sortu zaigu Gipuzkoan. Asmo eder ba-
ño ederagoa derama biotzean; euskerazko aldizkariak bareatu ta zabaldu eus-
kalerian, naiz Gipuzkoan, naiz Bizkayan, naiz Araban, naiz Nafarroan.

Ortarako zabalduko ditu bere lagunak eta bere lanak lau erialde oietara;
oietan egin nai ditu euskal-jaiak, eman zenbait ikuskari ta mintzaldiak egin, oien
bidez obeki euskaldunetan aldizkari oien alde laguntza ta artzaleak biltzeko.

Azkeneko Uriaren 12'an jaio zan Alkartasun ori Donosti'an.

Bere Burutzat aukeratu zan Artzelus'tar Andres Jauna.

Lagunarte ortan izango dira; a) urtean 2 pezetatik 25'etara ordaindiko dute-
nak; b) 25'etik 250'etara emango dutenak, *Ongilleak*; d) eta batean 250 ematen
dutenak *betikoak* eta azkenean ezer eman gabe lana egingo dutenak langileak.

Lagunarte ortan sartu nai dezutenak gaztigatu Artzelus J'ri Donosti'ra.—
Fuenterrabia, 22, 3.^a.